

Katedrako kideen jarduerak

Iñigo de Miguelek "¿Existe un derecho a la identidad genética?" artikulua argitaratu du Arbor aldizkariaren 730. zenbakian, 2008ko martxo-apirila, 261-276. orr.; eta "La Clonación. ¿Sueño o quimera? Un análisis ético jurídico de la transferencia de núcleos celulares" eta "La Clonación. ¿Sueño o quimera? Un análisis ético jurídico de la transferencia de núcleos celulares" kapituluak Bioética y Bioderecho testuan, Rafael Junquera De Estefanik koordinatuan. Ponentzia bat ere aurkeztu du, "El Concepto de Embrión en la Ley 14/2007, de 3 de Julio de 2007, de Investigación Biomédica", Jesulagunen Unibertsitateek Madrilen antolatutako "Los avances del Derecho ante los avances de la Medicina" Biltzarrean, 2008ko ekainaren 16tik 18ra. Shefielden (Erresuma Batua) izan zen "Privileged" europar ikerketa proiektuaren bilerara ere joan zen, urtarrilaren 8tik 11ra, eta Bukaresten (Errumania) "Biotethed" europar ikerketa proiektuarenera ere bai, martxoaren 4tik 6ra.

Aitziber Emaldi Ciriónek honako hitzaldi hauek eskaini ditu: "Terapia génica y regenerativa: el riesgo de la eugenesia", Fe, salud y dignidad humana elkarteak antolatua, 2008ko otsailaren 22an; "Utilización de muestras biológicas: información y consentimiento", III Jornada de Investigación Clínica: Muestras Biológicas y Biobancos delakoan, Ramón y Cajal Ospitale Unibertsitarioko Ikerketa Biomedikorako Fundazioak antolatuta, Madrilen, 2008ko apirilaren 10ean; "La investigación biomédica: aspectos ético-jurídicos", II Jornada de Comités de Ética asistencial de la región de Murcia delakoan, Reina Sofia Ospitale General Unibertsitarioak antolatuta, Murtzian, 2008ko apirilaren 29an; "El nuevo marco de la ley de investigación biomédica", "Los avances del Derecho ante los avances de la Medicina" gaiari buruzko Nazioarteko Biltzarrean, Comillaseko Unibertsitate Pontifikalak antolatuta, Madrilen, 2008ko ekainaren 16tik 18ra; "Análisis de la ley orgánica 10/2007, de 8 de octubre, reguladora de la base de datos policial sobre identificadores obtenidos a partir de ADN" Datuak Babesteko Espainiar Agentziak antolatuta, 2008ko maiatzaren 21ean.

Artikulu bat ere idatzi du: "Human biological samples in research: juridical perspective", Bioethics Global & Social aspects, European Association of Global Bioethics arg., 2008, 137-147. orr. Otsailean Deustuko Unibertsitateko Ikasle ohien Elkarteko kudeatzaile izendatu zuten.

Pilar Nicolásek honako hitzaldiak eskaini ditu: "Condiciones de legalidad de la exportación de datos personales desde Europa a terceros países" eta "Tratamiento de datos en el sector de la salud en Europa", Seminario Internacional sobre Regulación del tratamiento de datos personales. Cuestiones disputadas izenekoan, Informatikako Zuzenbideko Ikasketen Zentroa, Txileko Unibertsitatea; "La nueva era de la investigación biomédica" La Ley de investigación biomédica y los biobancos jardunaldian, Bartzelonako Ospitale Klinikoan; "Aspectos jurídicos aplicables en la obtención y uso de células obtenidas por reprogramación inducida" II Jornadas de Medicina Regenerativa delakoan, Gregorio Marañón Ospitalean; "Implicaciones legales de la ley de Investigación Biomédica en cáncer hereditario" Consejo Genético y Cáncer Hereditario gaiari buruzko prestakuntza ikastaroan, SEOMek antolatuta; "Ethical and legal issues of genetic testing", 3rd Familial Cancer Conference delakoan, CNIO; eta "Obtención y utilización de datos genéticos en la contratación de seguros. La difícil concreción de la prohibición de discriminación", Congreso Internacional sobre Los avances del derecho ante los avances de la medicina izenekoan, ICADE. Ondorengoak argitaratu ditu: "La protección de los datos genéticos de carácter personal en Derecho penal español: un caso práctico", Temas de Derecho Penal. Libro homenaje a Guillermo Cornejo Cuadrado, Adrus argitaletxea, Arequipa, 2008. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzaren "No financiación de tecnologías sanitarias en los Hospitales" ikerlaneko talde nominalean parte hartzen du.

Sergio Romeo Malanda 2008ko martxoan hasi da Las Palmas Kanaria Handiko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle lan egiten. Ondorengo lanak argitaratu ditu: "El aborto criminológico derivado de una reproducción asistida no consentida", in Temas de Derecho Penal, Adrus argitaletxea, Arequipa, 2008; "Pharmacogenetic testing: Legal considerations for consent, privacy and disclosure" (Dianne Nicol-ekin batera), Personalized Medicine, 5 (2); La utilización de materiales biológicos humanos con fines diagnósticos y terapéuticos, Estudios de Deusto, 1. zk. (2008); Minoría de edad y aborto: algunas consideraciones sobre consentimiento y confidencialidad; Humanitas aldizkaria, 28. zk., (sarbidea on-line: www.fundacionmhm.org). Horrez gain, honako hitzaldiak eskaini ditu: "La menor de

edad ante la interrupción del embarazo: consentimiento y confidencialidad", Madrilen izandako Los avances del Derecho antes los avances de la biomedicina Nazioarteko Biltzarrean, 2008ko ekainaren 16tik 18ra; "El Derecho penal y la protección de los intereses de los consumidores", "Los derechos de los consumidores y la jurisdicción civil, penal y mercantil" ikastaroaren barruan, Enplegu, Industria eta Merkataritza Sailak (Kanarietako Gobernu) eta Kontsumoko Institutu Nazionalak (Osasun eta Kontsumo Ministerioa) antolatuta, Las Palmas Kanaria Handian, 2008ko ekainaren 11n.

Leire Escajedo San Epifaniok ondorengo lanak argitaratu ditu: «Biotechnologie, Santé et Environnement dans L'Union Européenne: Aspects Politiques et Juridiques », Revue du Marché commun et de l'Union européenne, 517. zk., 2008ko apirila, 255 – 266 orr. ; "Productos transgénicos y alimentación en el Tercer Mundo: el Derecho como instrumento de equilibrio", in Biotecnología, Desarrollo y Justicia, Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra, Bilbao, 2008, 317 – 369. orr. Biltzar eta gertaera zientifikoei dagokienez, honakoetan parte hartu du: "La (des)constitucionalización en la Unión Europea" izeneko Europako Zuzenbide Konstituzionaleko Nazioarteko Mintegi Complutensean, Madrilen izana 2008ko apirilaren 17an eta 18an, "Sobre la Constitucionalización de la Biomedicina en la Unión Europea: clonación humana y eugenesia en la Carta de Derechos Fundamentales" komunikazioa aurkeztu zuen; Los Avances del Derecho ante los Avances de la Medicina Nazioarteko Biltzarrean, Comillaseko Unibertsitate Pontifikalean (Madril), Deustuko eta Ramón Llul Unibertsitateekin batera, 2008ko ekainaren 16tik 18ra. "La libertad fundamental de investigación y los nuevos controles éticos a la actividad biomédica" ponentzia; Jornada de Presentación del Comité de Ética de Intervención Social de Guipúzcoa delakoan ponente, 2008ko maiatzaren 23an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Deustuko Unibertsitateko Donostiako egoitzan antolatuta. Gaia: "¿A qué llamamos Comités de (Bio)ética? Cuántos y cuáles son; por qué y desde cuándo existen; qué hacen, cómo y dónde" .

Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Kideak :


Carlos M^o Romeo Casabona dk. (Zuzendaria)
Aitziber Emaldi Cirió dk (Aldizkako argitalpenen eta jardunaldien koordinatzailea)
Leire Escajedo San Epifanio dk.. (Graduondoko ikasketen koordinatzailea)
Pilar Nicolás Jiménez dk (Ikerketa proiektuen koordinatzailea)
Sergio Romeo Malanda dk (Nazioarteko harremanak)
Iñigo de Miguel Beriain dk. (Ikertzailea)
María Jorqui Azofra dk. (Ikertzailea)
Emilio Armaza Armaza jn. (Ikertzailea)
Fátima Flores Mendoza dk. (Aholkularia)

Ulises Hernández Plasencia dk (Aholkularia)
Amelia Martín Uranga dk (Aholkularia)
Esteban Sola Reche dk (Aholkularia)
Asier Urruela Mora dk. (Aholkularia)

Leire Larrazabal Larraudogoitia (Idazkaria)

posta kutxa, 1
48080 Bilbao
Tel.: + 34 94 413 92 87
+ 34 94 445 57 93
Faxa: + 34 94 445 55 13
llarraz@genomelaw.deusto.es
www.catedraderechoygenomahumano.es

Boletín hau Deustuko Unibertsitateko itzulpen Zerbitzuak itzuli du



Perspectivas

en Derecho y Genoma Humano

11. zenbakia, 2008ko Ekaina

Zuzenbide eta Giza Genomako BBVA Fundazioa - Bizkaiko Foru Aldundia Unibertsitate arteko (DU, EHU) Katedra

Zuzendaria: Carlos María Romeo Casabona dk. irak. zuzenbideko eta medikuntzako doktorea eta honoris causa doktorea

Boletín hau ingelesez eta gaztelaniaz ere argitaratzen da

Berri interesgarriak

Carlos María Romeo Casabona irakaslea Ikerketarako Europako Aholkularitza Batzordeko (ERAB) kide izendatu dute

Europako Batzordeak Ikerketarako Europako Aholkularitza Batzordeko (European Research Area Board, ERAB) kide izendatu du Carlos María Romeo Casabona, Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrako zuzendaria.

Erakunde horretako hogeita bi kideek (Romeo Casabona espainiar bakarra eta legelari bakarra da bertan) Europako exekutiboari ikerketa arloko aholkularitza emango diote. Arlo akademikoa, zientifikoa eta enpresa arloa jatorri dituzten aditu horiek aholku independentea emango diote Europako Batzordeari ikerketa eta politika zientifikoaren arloan eta Europako ikerketa-esparrua bultzatuko dute.

Europako zientziaren etorkizunari buruzko eztabaidak agerian jarri du estatu kideen ahalegina, komunitate zientifikoarena eta enpresena areagotu behar larria, Europako ikerketa hobetzeko, ikerketaren emaitzak eraginkortasunez gizarteratzeko, besteak beste, beronen araubide juridikoaren berrazterketa eta patentea sustatuz, eta EBren mundu mailako lidergoa ziurtatzeko arlo horretan. Ikerketarako Europako Aholkularitza Batzorde berriak funtsezko zeregina beteko du Europak ikerketa arloan jarri dituen helburuak lortzeko ekimen eta jarduera politikoaren garapenean, sustapenean eta ebaluazioan.

Batzorde honen eraketak garbi erakusten du zein beharrezkoa den aditurik nabarmenaren aholkularitza izatea Europako Batzordearen agenda politikoan gero eta toki garrantzitsuagoa izango duen arlo honetan. ERABen zeregin nagusietariko bat Europako ikerketaren egoerari buruzko urteroko txostena prestatzea izango da Erkidegoko exekutiboarentzat.

ERABeko kideak batzorde independente batek proposatu zizkion Europako Batzordeari. Batzorde horretako kideak hauexek ziren: Claudie Haigneré, Ikerketa eta Teknologia Berrietako frantziar ministro ohia; Vaira Vike-Freiberga, Letoniako presidente ohia; eta Andrew Dearing, Industria Ikerketako Europako Elkarteko idazkari nagusia.

Romeo Casabonaz gain, Ikerketarako Europako Aholkularitza Batzordeko kideak hauek dira: Reinhold Achatz, Siemens Corporate Research and Technologies-eko presidenteordea (Alemania); Robert Aymar, CERN-en zuzendari nagusia (Suitza); Lajos Balint, Hungariako Garapeneko eta Informazio Nazionaleko Institutuko Nazioarteko Harremanetako zuzendaria; Jean Botti, EADS-en ordezkari teknikoa (Alemania); Adelheim Ehmke, Emakume Zientzilarien Europako Plataformako presidentea (Belgika); Frank Gannon, Irlandako Zientziaren Fundazioko zuzendari nagusia; Barbara Haering, EONCEPT-en zuzendari exekutiboa (Suitza); David King, Smith School of Enterprise and the Environment-en zuzendaria (Erresuma Batua); Leif Kjaergaard, Danisco A/S-ren ordezkari teknologikoa (Danimarka); Marja Makarow, Zientziaren Europako Fundazioaren zuzendari exekutiboa; Karol Musiol, Jagiellonian University erakunde errektorea (Cracovia, Polonia); Zaneta Ozolina, Letoniako Unibertsitateko irakaslea; Maria Cristina Pedicchio, Triesteko Unibertsitateko Zientzien Fakultateko irakaslea (Italia); Alain Pampidou, Centre National de la Recherche Scientifique-ko ikertzailea (Frantzia); Unni Steinsmo, SINTEF-en presidentea (Norvegia); Lena T. Torell, Ingeniaritza Zientzien Suediako Erret Akademiako presidentea (Suedia); Jan Van den Biesen, Philips Research-en presidenteordea (Herbehereak); Georg Winckler, Europako Unibertsitateen Elkartearen presidentea (Belgika); John Wood, Imperial Collage-eko Ingeniaritza Fakultateko dekanoa (Londres, Erresuma Batua); Batzordeko buru aukeratua; Ingrid Wüning Tschol, Robert Bosch Stiftung erakunde Zientzia eta Ikerketako arduraduna (Alemania); eta Nuket Yetis, TÜBITAK-en presidentea (Turkia).

Iritzia

SIMONE PENASA (Italia)

Botika berrien ikerketaren eta merkaturatzearen erronkak. Mintegi bateko gogoetak (Bilbao, 2007ko urriaren 29a).

2007ko urriaren 29an Deustuko Unibertsitatean Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak antolatutako mintegi baten haritik, egoki da diziplina arteko eztabaida emankorra izan duen gai baten inguruko

ondorioak ematea. Are gehiago, Romeo Casabona irakasleak bere Aurkezpenean azpimarratu zuen bezala, teknikan eta ikerrildoean etengabeko eta errotiko aurrerakuntzak jasaten dituen arlo juridiko honetan –botiken ikerketan eta merkaturatzean–. Hau guztiau testuinguru global batean egin beharra dago; izan ere, alde batetik, lehiaren, jakintzaren eta emaitzen joan-etorri onbidetsurako bidea ematen badu ere, bestetik, izaera juridiko, ekonomiko eta sozialeko gaiak areagotu egiten baititu.


Botika berrien ikerketari eta merkaturatzeari lotuta, hiru maila bereiziko genituzke, garrantzi juridiko gorakorra dutenak.

Lehenengo maila deskribatzaile batean, esparru honen ezaugarri den eboluzio zientifikoa kokatuko genuke, gizartearekin lotuta eta, ondorioz, zuzenbidearekin eta beronen aktoreekin, errealtateak gatazkan egon daitezkeen hainbat ikuspegi baititu. Interes kontrajarriak daude aurrez aurre, Konstituzioak onetsitako interesak denak, eta interes horiek era harmonizatu eta orekatuan babestu behar dira Zuzenbidearen esku hartze arautzailearekin. Gatazka horren funtsezko gunea, alde batetik, enpresen interesen eta, bestetik, gizartearen. Eskubide eta betebeharen horien arteko arazoizko oreka, beriz, interes orokorrak (osasuna, intimitatea eta osotasuna, baina baita helburu diagnostiko edo terapeutikoak dituzten jakintza eta aurrerapen zientifikokoak) eta interes pribatuak (finantza inbertsioa eta aurkikuntza zientifikoaren ustiapen ekonomikoa) lotzen dituzten harremanen esparruan kokatu behar da: arautzeko neurri juridikoei dagokionez, oreka patenteen sistemaren (enpresa askatasuna eta ikertzeko askatasuna bermatzen baititu) eta inplikaturak dauden pertsonen autonomia, garapen askea eta osotasuna babestearen artean kokatuta dago. Irsten hain zaila den oreka horrek tresna juridiko sendoak behar ditu, arauak zehazteko, eta eraginkorrak, eskubideak eta askatasunak bermatzeko, osasun publikoa babesteko baina enpresen jardura zientifikoa gehiegi oztopatu gabe, denon onerako den ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustatzeko balio duen aldetik, oinarri konstituzionalekin bat.

Zelan lortu hau guztia? Horrela heldu gara garrantzi juridikoaren bigarren mailara



Fundación BBVA



–arauemaile deitutakora-, botiken gaineko ikerketari eta merkaturatzeari lotutako tresna juridikoen azterketa kritikoa ezaugarri duen mailara, hain zuzen. Izan ere, ikerketa zientifikoa eta beronen emaitzen merkaturatzea juridikoki arautu beharrezko agerian jartzen du lege hutsa ez dela gauza, ez dela aski, diziplina eraginkorra eta ziurra bermatzeko. Legea sarritan zehatz, konplexu, aldakor eta teknikoegia izan ohi da –errealitate berrien eta mugagabeko eboluzioan dauden aurrean–, bere ohiko funtzio arautzaileak betetzeko.

“Bide” administratiboa (ildo honetakoak dira Fernández Brañasen ekarpena, La oficina Europea de patentes y la patente biotecnológica, eta Bellver Capella irakaslearena), baimen sistema bat da, baldintza eta muga hertsia dituen, eta osasun publikoa bermatzea eta sustatzea edozein baimen emateko funtsezko iragarki estandartzat duena. Aparteko garrantzia du Nazioarteko Zuzenbideak (Esplugues Mota irak. Comercio Internacional de Medicamentos), bertan ezarri ahal izango bailirateke derrigorrezko estandar komun batzuk nazioarteko subjektu guztientzat; adibidez, ex ante nazioz gaindiko erakundeetan sartu ahal izateko beharrezko den lege multzoan estandar horiek sartuz; eta ex post, nazioarteko arbitraje sistema baten bidez.

“Bide” judizialak (De Ángel Yagüez irak., Medicamentos, salud pública y responsabilidad jurídica), epaileen esku hartzea aurrekusten du, ex ante kontrolerako, baimenetarako eta jarraipenerako ezarritako neurriak gorabehera talka egin duten eskubideen eta interesen artean oreka berrezartzeko.

Azkenik, “autoerregulazioaren bidea” dago (Martin Uranga dk., Investigación biomédica con medicamentos innovadores). Bide horrek argi aitortzen du ikerketarekin zerikusi zuzena duten subjektuek paper diziplinario zuzena dutela, bai epaileen eta ikertaldearen ikuspegitik, bai jardueretan sartuta dauden pertsonen ikuspegitik. Denek hartu behar dute ariskua beren gain elkar hartuta, erregulazio mekanismoetan parte hartuz. Esparru horretan, batzorde teknikoek funtsezko funtzioa betetzen dute, alde aurretiko baimena ematean eta irizpideak eta baldintzak ezartzean –“case by case approach” delakoan oinarritutako ikuspegiaren arabera– batetik, eta baimendutako proiektuen segidako eta etengabeko jarraipena eta kontrola eginez, bestetik. Kideak izendatzeko moduak, batzordeen osara (independentzia eta gardentasuna bermatzeko), batzorde desberdinen arteko koordinazioa, eta informatzeko eta ikerketeko botereek informazio esanguratsua eskuratzeko eraginkorrak izatea, oinarritzko baldintzak dira autoerregulaziotik erregulazio eta kontrol hutsune nabarmenera ez jotzeko.

Tresna juridiko anitz direla aukeran aitortuta, zer elementu izan litezke irizpide egoki euren artean aukeratzeko? Galdera honi erantzuteko, garrantzi juridikoaren hirugarren mailan sartu behar dugu, metodologiko definitu dezakegun mailan. Tresna normatiboan helburu komuna interesen eta eskubideen artean ponderazio orekatua lortzea bada, bakoitzaren baliagarritasun juridikoa ebaluatzeko parametroa zera izan beharko da: ikerketa jardueraren erregulatzeko, kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko eta horretan esku hartzen duten pertsonen eskubideak bermatzeko lortutako eraginkortasuna. Eraginkortasun hori irizpide kualitatibo eta kuantitatibo multzo baten argitan ebaluatu beharko litzateke. Horien artean azpimarratuko genituzke –enpresen eta ikertaldearen ikuspegitik– bai baimena emateko prozesuaren gardentasuna eta independentzia eta kontrolarekin erakunde eskaintako informazioa, bai botikaren eraginkortasun terapeutikoari,

segurtasunari eta kalitateari buruzko judizioa: bestalde, –gaixoen ikuspegitik– ikerketan eta terapian gaixoen adostasunari aitortutako funtzioa, garrantzia eta izaera bera azpimarratu behar dira, izan ere, baimena emateko prozedura administratibo soil bat izatetik ekintza mediko benetakoa, kontzientea, informatua eta arduratsua izatera pasatu behar baita: kontua ez da hainbeste ekintza automatiko eta bat-bateko bat izatea, baizik eta etengabe ardura eta parte hartzea, ikerketan zehar. Hamaika interesen nahaste honetan, botere publikoen erantzukizuna erabakigarria da, beharrezko oreka funtzio bat garatzeko, esaterako, inbertsio pribatuaren eta inbertsio publikoaren artean, ikerrildoen arteko kontrol eta ekitate maila handiagoa bermatzeko, Konstituzioak adierazitako zereginekin bat etorritik, ikerketa tekniko eta zientifikoaren sustapena eta osasuna babestu beharra harmonizatuz, botiken kontrol aktibo eta etengabea bermatuz.

Ondorioz, garrantzi juridikoko hiru maila horiek sistematikoki aztertuta, hirurak eginkizun harmonizatzailean lotzen dituen haria izan behar da esparru honetako edozein jardueraren arautzaile orientatzeko irizpidea: hobe da kontrol eraginkorra egitea ikerketan edo esperimenduetan zehar, baimen, onarpen eta jarraipenerako prozedurazko mekanismoen bidez, eta ez behin-behineko kontrola izatea, debeku, betebeharrak eta zigorrak lege sistema baten bidez, “in the books” zorrota eta, ziurra izan arren, “in action” hauskorra eta zalantzazko gertatuko baita, ez baitu beteazteko tresna operatiborik.

Katedrako Nobedadeak

POSEIDON PROIEKTUA

2008ko otsailaren 1ean Anne Chambón-Thomsen frantziar zientzialariak koordinatzen duen POSEIDON europar proiektuaren bilera bat izan zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Proiektu honen helburu nagusietako bat ahaidetasunik gabeko ama zelula hematopoietikoen transplantazioaren segurtasuna hobetzea da eta Europar Batasunean terapia mota hau jaso ahal izateko sistema berdintsuagoa ezartzea. Bilera honetan 4. bloke tematikoko (WP4) kide guztiak parte hartu zuten, Carlos María Romeo Casabona irakaslearen koordinaziopean. WP4 delakoa ama zelula hematopoietikoen dohaintzak planteatzen dituen lege arazoei buruzkoa da eta 2004/23/CE zuzentarauaren aplikazioari buruzkoa, zelulak eta giza ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, gordetzeko, metatzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituenari buruzkoa, hain zuzen.

LATINBANKS PROIEKTUA, Latinoamerikan material biologikoen bankuak sortzearen eragin juridikoei eta sozialei buruzko ikerketa

Otsailaren 22an eta 23an izan zen Deustuko Unibertsitatean LATINBANKS Proiektuko ikertzaileen lehenengo bilera. Proiektu honekin hasi da Europako eta Latinoamerikako hamabi unibertsitateen arteko lankidetzak Europako Batzordearen ALFA programaren barruan, MEDNET sarea eratuta. Bilera hiru saiotan banatu zen eta Carlos María Romeo Casabona eta Jürgen Simon irakasle eta proiektuaren koordinatzaileek inauguratu zuten, Helena Moniz (Coimbrako Unibertsitatea – Portugal) eta Myriam Blumberg-Mokri (Paris) irakaslearen moderaziopean, baita Manuel Lobato García-Miján irakaslearekin ere (Espainia). Honako irakasle hauen hitzaldiak entzun ziren: Salvador Dario Bergel (Buenos Aireseko Unibertsitatea – Argentina), Ingrid Brena Sesma (Mexikoko Unibertsitate Autonomoa), Lorena Donos Abarca (Txileko Unibertsitatea), María de Fátima Freire de Sá (Minas Geraisiko Unibertsitate Pontifikal Katolikoa – Belo Horizonte,

Brasil), Carolina Figueredo Carrilo (Kolonbiako Externado Unibertsitatea, Bogota) eta Carlos Valerio (Costa Ricako Zuzenbide Medikoko Elkarte, San Jose); eta beste irakasle hauek ere parte hartzaile izan ziren: Bruno Torquato de Oliveira Naves (Minas Geraisiko Unibertsitate Pontifikal Katolikoa), Guilherme de Oliveira (Coimbrako Unibertsitatea – Portugal) eta Heike Bockmann (Lüneburg-eko Unibertsitatea – Alemania).

Proiektuko helburuekin bat, informazio zabala bildu zen Latinoamerikan dauden material biologikoen bankuek eta arazo eta oztopo batzuk antzeman ziren banku horien funtzionamenduan eta antolaketan. Ildo horretatik, eztabaidan zehar adostu zen hurrengo hilabeteetan, hamabi ikertzaileek material biologikoko banku horien egitura juridiko eta antolaketaren azterketan egin behar zutela lan, banku horien optimizaziorako proposamenak prestatzeko.

XENOME PROIEKTUA

XENOME europar proiektuaren jardueren barruan, Zubiria Etxean (Euskal Herriko Unibertsitatea) mintegi bat izan zen “Scientific Legal and Ethical Aspects of Xenotransplantation” gaiaren inguruan. Ekitaldiaren aurkezpena Romeo Casabona irakasleak egin zuen, mintegiaren koordinatzaileak, eta honakoak izan ziren parte hartzaileen hitzaldiak: “State of the art on preclinical studies” (Emanuele Cozzi, Italia), “State of the art on biosafety issues” (Yasu Takeuchi, Japonia), “Legal issues related to xenotransplantation: an overview of the current concerns” (Asier Urruela, Espainia); “Legal and ethical principles in scientific research: general framework” (Sadek Beloucif, Frantzia), “Comparative analysis between EU member States Law” (João Paulo Remedio Marques, Portugal), “The Italian regulatory context in the recent years with regard to cloning and transgenesis” (Cesare Galli, Italia), “An experience inside the Council of Europe working party on Xenotransplantation” (Marialuisa Lavitrano, Italia), “The introduction of New and Emerging Health Technologies in Public Health Systems” (José Asua Batarrita, Espainia), “The roles of publics in Xenotransplantation” (Mariachiara Tallachini, Italia).

BIOTETHED PROIEKTUA


Joan den martxoaren 4tik 8ra, Europako Batzordeak finantzatzeko “Biotethed” ikerketa proiektuko kideen bilera egon zen. Bertan Bioetika eta Bioteknologiari buruzko Ikastaro Aurreratuaren hurrengo edizioa diseinatu zen. Zuzenbide eta Giza Genoma Katedraren izenean Inigo de Miguel Beriain dk. izan zen bertan. Aipatutako ikastarora ekainean izan zen Bukaresten (Errumania) eta, Katedraren partez, Maria Jorqui dk. eta Emilio José Armaza Armaza lizentziatua egon ziren ikasle.


Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Kalitateko Agentziarekiko lankidetzak

Bi urtetan zehar, Katedrako kide eta laguntzaileek (C. M. Romeo Casabona, A. Urruela Mora eta A. Libano Beristain, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zuzenbide Prozesaleko katedradun M. Cachónen aholkularitzarekin) “Establecimiento de un sistema nacional de notificación y registro de incidentes y eventos adversos: aspectos legales” gaiaren inguruko txosten bat burutu dute Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Kalitateko Agentziarentzat. Hirurehun orri baino gehiagoko hiru dokumentu eduki ditu, ondorioak eta azken proposamenak ere azaltzen direlarik.

Katedrako jardunaldi eta mintegiei buruzko nazioarteko adituen batzordea

Katedrako jardunaldiak eta mintegiak ospatzeko Aholkularitzako Nazioarteko Batzorde Zientifikoa eratu da. Beronen zeregin jardunaldi eta mintegietako programak prestatzen laguntzea da,





bai gaiak bai hizlariak aukeratzen, baita emaitzei zabalkundea ematen ere. Era horretara kanpoko adituak sartu nahi dira Katedrako jardueretan, euren jakituria eta esperientzia ekarriz, ezarritako jarduera ildoak hobetzen jarraitzeko. Batzorde hau osatzen duten kideak honakoak dira: Europako herrialdeak (Espainia, Alemania, Belgika, Frantzia, Italia, Herbehereak, Erresuma Batua), Latinoamerikakoak (Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Costa Rica, Mexiko, Uruguai), Iparramerikakoak (Kanada), Australia eta nazioarteko erakundeetako kideak (Europar Batasuna).

Biozuzenbideko eta Bioetikako entziklopedia

Zuzenbide eta Giza Genomako Katedra hasi da Bioetikako eta Biozuzenbideko entziklopedia prestatzen. Lan honen bidez, inplikazio etiko edo juridikoak planteatzen dituzten bizitzako zientzietako gai guztietara jo ahal izango da arin eta erraz, eta zorroztasuna eta azalpenetako argitasuna izango ditu goiburua. Gonbidatutako autoreak berrehun inguru dira eta garatuko diren gaietan adituak, Espainia eta Latinoamerika mailan.

Zuzenbideari eta Giza Genomari buruzko XV. Jardunaldiak

Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak ohiko Zuzenbide eta Giza Genomari buruzko jardunaldiak izan zituen apirilaren 21an eta 22an, aurten 15. bider. Jardunaldien koordinazioaz Aitziber Emaldi Ciriñ dk. arduratu zen.

Hasierako hitzaldia, "Del Genoma Humano a la medicina individualizada" izenekoa, Jaime del Barrio doktoreak eman zuen, Madrilako Roche Institutuko zuzendari nagusiak; horren ondoren eman zitzaion hasiera lehenengo saioari, "análisis genético en inguruan", Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrako María Jorqui Azofra doktoreak moderatuta. Saio honetan parte hartu zutenak hauek izan ziren: Luis González Morán dk. irakaslea, Comillaseko Unibertsitate Pontifikaleko Bioetikako Katedrako Aholkularitza Batzordeko kidea, "El consentimiento del paciente" gaiaz aritu zen; Fernando Abellán dk., Madrilako Unibertsitate Europarreko Osasun arloko Zuzenbideko Masterreko irakaslea, "Protección de datos genéticos" gaiaz mintzatu zen; eta María del Rosario Sánchez Morales dk. UNEDeko Soziologiako irakasle titularra, "El impacto social y la percepción pública de los análisis genéticos" gaia jorratzen aritu zen.

Bigarren saioaren gaia "La identificación por perfiles de ADN en el proceso penal" izan zen. Oscar García, Auzitegi-Genetikako Nazioarteko Elkarte Espainiar eta Portugaldar taldeko presidentea izan zen arlo hau moderatzeaz arduratu zena. Atal honetan hitz egin zutenak hauek izan ziren: Ángel Carracedo doktoreak, Auzitegi Medikuntzako katedradunak eta Santiagoko Unibertsitateko Auzitegi Medikuntzako Institutuko zuzendariak, "Presupuestos científicos de la investigación por perfiles de ADN en el proceso penal" gaia jorratu zuen; Eduardo Osuna Sánchez doktoreak, Murtziako Unibertsitateko Auzitegi Medikuntzako katedradunak, "La bioinformática como herramienta fundamental en la investigación genética" gaiaz hitz egin zuen; eta Vicente Gimeno Sendra jaunak, UNEDeko Zuzenbide Prozesaleko katedradunak eta Epaitegi Konstituzionaleko magistratuak, "La Ley Orgánica 10/2007, reguladora de la base de datos policial sobre identificadores obtenidos a partir del ADN" landu zuen.

Hirugarren saioaren izenburua "Investigación biomédica: algunas cuestiones éticas y jurídicas"

izan zen eta Ana Adoración Castro Jover doktoreak, Euskal Herriko Unibertsitateko Estatuaren Eliz Zuzenbideko katedradunak, moderatu zuen. Saio honetan honakoek hartu zuten parte: Luis Fernando Niño jn. txit argiak, Buenos Aireseko (Argentina) Arlo Kriminalako Ahozko Epaimahaiko Epaila Nazional parte hartzaileak, "Principios jurídicos implicados en la investigación biomédica" gaiaz hitz egin zuen; Stella Maris Martínez doktoreak, Argentinako Nazioko Justiziako Gorte Goreneko defendatzaile nagusiak, "Los delitos sobre manipulaciones genéticas" jorratu zuen; eta Ana Fernández-Coronado González doktoreak, Madrilako Unibertsitate Complutenseko Estatuaren Eliz Zuzenbideko katedradunak, "Libertad de Conciencia y Bioética" gaia landu zuen.

Hinxton Group-en adierazpena zelula tronkal pluripotenteetatik eratorritako gametoeak planteatzen dituzten zientzia, etika eta politika errenken inguruan.

Mendeetan zehar, zientzilariek ugaztunen obuluen eta espermaren garapena aztertu dute. Lan honen zatirik handiena animalietan egin da, bereziki saguetan. Zelula tronkal pluripotenteak in vitro lantzeko gaitasunak erraztu egingo du giza obulu eta espermaren garapenari buruzko ikerketa. Hortaz, aurreikus dezakegu obuluak eta esperma lortu ahal izango direla laborategian zelula tronkal pluripotenteetatik. Ikerrildo horrek kontu etiko eta sozialak sortarazten ditu, kultura desberdinetan era desberdinetan aztertu daitezkeena. Dokumentuaren helburua zientziaren egoeraz eta gizarteko ondorio potentzialien egoerari buruzko eztabaida publikorako informazioa ematea eta politikari eta praktikan jartzeari buruzko gomendio batzuk prestatzea da.

Hinxton Group (Zelula tronkalei, Etikari eta Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Partzuergoa) 2004an sortu zuen, John Hopkins Berman Bioetikako Institutuaren ekimenez, jakintzaren arlo desberdinetatik erorritako hainbat nazionalitateetako pertsonak biltzeko asmoz, nazioarte mailan enbrioi eta zelula tronkalen ikerketarekin lotuta dauden lege arloko aldeetatik sortutako nazioz gairako lankidetzaren zientifikoaren erroka etiko, juridiko eta politikoak aztertzeke. Adierazpen hau taldeak eman duen bigarrena da, 2008ko apirilaren 11n agertu dena, eta bertan hartu du parte Katedrako zuzendari Carlos Romeok, Hinxton Groupeko kidea baita sorreratik bertatik.

Adierazpenaren testu osoa Katedrako web orrian kontsulta daiteke.

Katedrako argitalpenak

Revista de Derecho y Genoma Humano/Law and the Human Genome Review.

2008ko urtarrila-ekaina tarteari dagokiona, eta honako edukia du: Del genoma humano a la medicina individualizada (Jaime del Barrio); La clonación humana y el resguardo de los intereses de las mujeres (Marcela Ahumada Canbes); El estatuto jurídico del embrión en España: de la ley de reproducción de 1988 a la clonación terapéutica de nuestros días (Fernando Abellán-García Sánchez); Preimplantation genetic diagnosis: an ambiguous legal status for an ambiguous medical and social practice (Christian Byk); Reserva judicial y otras cuestiones relacionadas con el empleo del ADN en la investigación penal (II. zatia) (José Francisco Etxeberria Guridi); Ethical, legal and social issues related to cell therapy (Carlos María Romeo Casabona); The previous risk treatment of the transgenic crops in the Brazilian biosafety regulatory system (Bruno Taus Job e Meira); Investigaciones con células troncales embrionarias en Brasil y la (in)constitucionalidad del Artículo 5º

De La Ley De Bioseguridad (I. zatia) (María De Fátima Freire De Sá / Bruno Torquato De Oliveira); El estatus biológico del embrión humano. Nuevas repercusiones bioéticas y biojurídicas (Jorge Alberto Álvarez-Díaz)

Bioteknologia, Garapena eta Justizia

Monografía honek jasotzen du globalizazioak Bioteknologiaren garapenean duen eraginari buruzko hausnarketa bat eta batez ere zein jarraibide errespetatu beharko litzatekeen prozesu horretan justizia printzipioarekin bat burutu dadin, diziplina ugari eta kulturaz gairako ikuspegi batetik. Hori agerian geratu da Europa, Latinoamerika eta Asiako herrialdeetatik erorritako autoreen parte hartzean.

Gure garaiko erroka da globalizazio etiko kulturaz gairako esparru batean gertatzea, mundu globalizatu baten errokek eskatzen duten erantzunak emateko gai izango diren zenbait balio eta eskubide partekaturen onarpen unibertsala jasoz eta, aldi berean, herrialde eta taldeen kultura eta gizarte ohituren errespetua ziurtatuz.

Katedrako kideen jarduerak

Carlos Romeo Casabonak hainbat lan argitaratu ditu eta euren artean honakoak aipa daitezke: "Política legislativa penal y extrapenal en relación con la biotecnología humana", in El derecho ante la biotecnología. Estudios sobre la nueva legislación española en biomedicina, Lleidako Unibertsitatea, Departament de Dret Public, Héctor C. Silveira Gorski (arg.), Icaria argitaletxea, Bartzelona, 2008; "Decisiones ante la proximidad de la muerte del paciente: interrupción o no iniciación del tratamiento", in Aspectos médicos y jurídicos del dolor, la enfermedad terminal y la eutanasia, Lilly Fundazioa eta Unión Editorial, Manuel Gómez Tomillo (zuzendaria); "Globalization and the Dynamic Role of Human Rights in Relation to a Common Perspective for Life Science", in Marcus Düwell/Christoph Rehmann-Sutter/Dietmar Mieth (arg.), The Contingent Nature of Life, Springer, The Netherlands, 2008; "La Ley de Investigación Biomédica: un nuevo y completo mapa para la investigación científica", in Redes de Investigación en medicamentos, Farmaindustria, 10. zk. (2008). Horrez gain, hainbat hitzaldi eskaini ditu estatuko eta nazioarteko foroetan: "El debate jurídico actual sobre la investigación y terapia con células madre: la nueva regulación en España y en otros países europeos", Da sociedade globalizada aos desafios da biomedicina Nazioarteko Sinposioa, PUCPR-Curitibak antolatua, Brasilen, martxoaren 4tik 8ra; "Human Biotechnology, Globalisation and Symbolic Criminal Law", International Symposium "Ethik und Recht im Bereich der Gesundheit", Yeditepe Universitesik eta Roche Institutuak antolatua, Istanbulen, apirilaren 17tik 19ra; "The legal approach to medical liability", European Conference The ever-growing challenge of Medical Liability: National and European Responses, Europako Kontseiluak antolatua, Strasburgon, ekainaren 2an eta 3an; "Muestras biológicas e investigación con células madre", La Ley 14/2007: un nuevo escenario para la Investigación Biomédica jardunaldia, Salud 2000 Fundazioak antolatuta, Madrilen, 2008ko urtarrilaren 23an; "La ley de investigación biomédica y su incidencia en la práctica asistencial", Ospitaleko Saio Klinikoa, Kanarietako Ospitale Unibertsitarioak antolatuta, Tenerife, 2008ko martxoaren 26an. Gainera, "Derecho Penal y Globalización" mintegia zuzendu du, Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitateak antolatua Valentziako Generalitatearekin eta Valentziako Nazioarteko Unibertsitateko Fundazioarekin batera (Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatean, 2008ko apirilaren 28tik 30era).

